

## UDALAREN FUNTZIONARIOEN PLANTILAN BETEGABE DAUDEN LAU UDALTZAIN PLAZA HORNITZEKO ETA LAN-POLTSA BAT OSATZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

### 1.- ARAU OROKORRAK.

Udalaren funtzionarioen plantilan bete gabe dauden lau udaltzain plaza oposizio irekiaren bidez hornitzeko eta hautapen prozesua gainditu baina plaza lortzen ez duten izangaiekin lan-poltsa bat osatzeko hautaketa probak deitzen dira. Bete beharreko plazak bost arte gehitu ahal izango dira hautaketa prozesua bukatu baino lehen Udalak horrela erabakiko balu.

Administrazio Bereziaren eskalan, Zerbitzu Berezien azpi-eskalan, eta Enplegatu Publikoaren Estatutuak eta Euskal herriko Poliziaren legearen hirugarren aldaketa onartzen duen maiatzaren 28ko 2/2008 legeak hirugarren xedapen Gehigarrian jasotakoari jarraituz, C sailkapen-mailan, C2 azpitaldean daude sartuta lanpostu horiek.

ARCEPAFEko 10. mailari dagokiona izango da jaso beharreko ordainsaria.

2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigortasun data betetakoa izanik.

Eratuko den lan-poltsak bi urteko denborazko muga edukiko du, bere iraupena urtez urte luzatu ahal izango da Tokiko Gobernu Batzarraren akordioz.

Abuztuaren 2ko 30/1984 legea, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea, urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua eta deialdi honetan xedatutakoa aplikatu ahal izango zaizkie hautaketa proba hauei.

### 2.- EGITEKOAK.

Udaltzain-agente lanpostuaren berriazko egitekoez gain, udal plantilaren lanpostuen zereginen deskripzioan aldian-aldian agertzen direnak eta, lanpostuari dagokionez, udal bulegoetako edozeinetan emateko esleitzen zaizkionak.

### 3.- HAUTAGAI EK BETE BEHAR DITUZTENAK.

Hautaketa probetarako onartuak izateko baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiak:

- a) 18 urte betetik izatea eta 32 urte bete gabe izatea. Hala ere, adin mugarik altuena Udal Administrazioan egindako zerbitzuekin -Udal Polizia Kidegoetan- konpentsatu ahal izango da.
- b) Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den tituluaren jabe izatea.
- c) 2. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa eta derrigortasun data betetakoa izanik..
- d) Gutxieneko garaiera: gizonezkoek 1,65 eta emakumezkoek 1,60.
- e) Deialdi honetako II. eranskinean aipatzen diren Medikuntzako Bazterketen koadroan sarturik ez egotea.
- f) Engainuzko delituagatik kondenatu ez izatea, Herri Administrazioaren zerbitzuetik bereizturik ez egon izana, eta egiteko publikoak burutzeko ezgaiturik ez izatea.  
Hala ere, birgaitzearen onura aplikagarri izango da arau penal eta administratiboekin bat etorriz, baldin eta hautagaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu.
- g) A, BTP eta B+E motako gida-baimenaren jabe izatea.
- h) Nazionalitate espainiarra izatea.
- i) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko Polizi Kidegoren batean sartzeko hautespen-prozesutik baztertutakoa ez izatea, non eta baztertea aitortu zenetik zigorraren iraungipen-epea adinako aldia ez den igaro.

Instantziak aurkezteko epea amaitzen den egunean bertan izan beharko dira lehen aipatu diren baldintza guztiak. Dena den g) puntuari jasotako karnetak dituela egiaztatu beharko du bederatzigarren oinarrian jasotako epean eta deialdian parte hartzeko nahikoa izango da ziurtatzea B motako karneta duela.

#### 4.- ESKABIDEAK.

Oposizioan parte hartzeko instantziak Alkate andreari bidaliko zaizkio eta udaletxeko erregistroan edo Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legearen 38.4 c) artikuluan adierazten dituen erregistroetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eske-orriak, 20 egun naturaleko epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Posta-etxean aurkeztutako eske-orriak, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legearen 38.4 c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kartazal irekian aurkeztuko dira Posta-etxeko funtzionarioak, zertifikatu aurretik, eguna eta zigilua jartzeko; betiere, eske-orriak aurkezteko epearen barruan. Eske-orriak zigilatuta dagoenean bakarrik ulertuko da eske-orri horiek sarrera izan dutela Bergarako Udaletxeko erregistro orokorrean Posta-etxean entregatu ziren egunean bertan.

Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharko dira Nortasun Agiriaren fotokopia, curriculum vitae, eskatutako ikasketa-titulazioaren fotokopia konpultsatua eta 7. oinarrian a) atalean zehaztutako dokumentazioa, eta gidatzeko B motako karnetaren fotokopia.

Aurkezten diren fotokopia guztiak konpultsatuak izango dira.

## 5.- HAUTAGAIAK ONARTZEA.

Instantziak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du Udalbatzako Lehendakariak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 10 egun naturaleko epean, erreklamazioak egin ahal izateko. Zerrenda honekin batera lehen azterketaren eguna eta ordua eta Epaimahaikideen izendapena argitaratuko da.

Erreklamaziorik egin ezean, behin-betiko izaera hartuko du zerrenda horrek, eta erreklamaziorik egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira, behin-betiko zerrenda onartzen duen erabakiaren bidez, eta Udaleko iragarki taulan argitaratuko da.

## 6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILE.

Honela eratuko da epaimahai kalifikatzailea:

**Lehendakaria:**

- Alkateak izendatzen duena.

**Bokalak:**

- Ertzaintzaren Akademiako ordezkari bat.
- HAEEko ordezkari bat, euskara proba egiteko.
- Bergarako Udaleko Udaltzainburua.
- Beste Udal bateko Udaltzainburua.
- Enpresa Komiteko ordezkari bat..

**Idazkaria:**

- Udaleko idazkaria edo hark delegatutako funtzionarioa.

Titularrekin batera izendatu behar diren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia.

Iritzia ematea eta botoa ematea izango dute epaimahaiko kide guztiek, epaimahairen idazkariak izan ezik, honek ez baitu botatzeko ahalmenik. Bertaratutako botodunen gehiengoaz erabakiko du epaimahaiak, eta parra eginez gero, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Udolean presentzia duten alderdi politikoek ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

Epaimahaia osatu eta jardunari ekin ahal izateko, lehendakaria eta idazkaria eta, gutxienez, epaimahaiko kide titular edo ordezkoen erdia bertaratu beharko da,edozein kasutan gutxienez ere hiru kide bertaratu beharko dielarik.

Arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak erabakiko ditu epaimahaiak, eta aurreikusi ez diren kasuetan zer egin erabakiko du.

Egoki iritzitako probetan, aholkulari adituak ekarri ahal izango ditu epaimahaiak. Euren espezialitate teknikoetan baino ez dute lagunduko aholkulari horiek.

Dagozkion neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak, epai-mahaiaren aurrean idatzizkoak izan eta irakurri behar ez diren Oposizioaren ariketak hautagaien izena jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

## 7.- EGIN BEHARREKO ARIKETAK.

Proba hauek egingo dira oposizioaldian:

a) Ezaguera teorikoak. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

I eranskinean agertzen diren gaietatik ateratako test motako galdera sorta bati idatziz erantzutean datza. Gehienez ere 30 puntuz baloratuko da, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 15 puntu lortzen ez duten hautagaiak.

b) Gaitasun fisikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

III. eranskinean deskribatzen diren probak egin beharko dituzte izangaiek. Gehienez ere 30 puntuz baloratuko da, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez duten hautagaiak.

c) Euskara jakitea. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Egiaztagiria aurkeztuta edo dagozkion probak eginez egiaztatu beharko dute hautagaiak 2. hizkuntz eskakizuna dutela. Gai edo ez gai kalifikatuko da. EGA edo baliokidea den titulu edo agiria, Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila gainditu izanaren agiria, Hizkuntza Eskola Ofizialeko gaitasun egiaztagiria edo Labayru institutuak emandako parekoa, Hezkuntza Sistemako 1 edo 2 HE, nahiz IVAP-HAEEak luzatutako egiaztagiria (2.a edo goragoko H.E duela egiaztatzen duena) aurkezten duten hautagaiak ez dute ariketa hau egin beharrik.

d) Ezaguera praktikoak. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Lanpostuaren egitekoekin lotutako kasu praktiko batzuk idatziz garatu beharko dituzte. Gehienez ere 30 punturekin baloratuko da eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 15 puntu lortzen ez duten hautagaiak.

e) Froga Psikoteknikoa eta Elkarrizketa pertsonala. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Gaitasun intelektual eta pertsonalitatearen gaitasunei buruzko test bat egin beharko da, Udaltzaingoaren agente kategoriako funtzioak betetzeko barietateak ebaluatu ahal izateko. Halaber ezaugarri pertsonalak ebaluatuko dituen elkarrizketa froga honen atal bat izango da eta epaimahaiak trebetasun sozialak, egoeretan zelan jardun, arrazoitzeko gaitasuna, e.a. baloratuko ditu.

Gehienez ere 30 puntuz baloratuko da eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 17 puntu lortzen ez duten hautagaiak.

**Oposizioari ekin aurretik, 3. oinarriak d) atalean jasotako baldintza betetzen dutela izangaiek egiaztatuko du epaimahaiak. Epaimahaiak, halaber, oposizioaldiko froga bat baino gehiago egun berean egitea erabaki ahal izango du.**

#### **8.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.**

**Epaimahaiak bere proposamena egiterakoan ezin izango du deklaratu deitu diren plazak baino hautagai gehiagok gaintitu dituztela hautaketa-probak.**

**Oposizioaldian lortu diren kopuruak batu eta huraxe izango da hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa, eta horrek zehaztuko du behin-betiko puntuazio-ordena.**

**Ariketen kalifikazioa amaitutakoan, proposatu diren hautagaien izenak eta lanpoltsa osatuko duten beste hautagaien izenak Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko ditu epaimahaiak.**

**Dagokion akta eta izendapen-proposamenak bidaliko dizkio Epaimahaiak Alkate-Udalburuari.**

**Izendatzeko proposamena Udaleko iragarki taulan argitaratzen den egunetik 15 egun naturaleko epean, Oposizioan parte hartzeko 3. oinarri-arauan eskatzen diren baldintzen egiaztagiria aurkeztu behar dituzte proposatu diren hautagaiek e) puntukoa ezik. Ez dute egiaztatu beharko ere A, BTP eta B +E gida baimenak dituztela, ez bada eskuratua dituztela.**

**Plaza betetzeko gai direla eta II. eranskinean aipatzen diren medikuntzako bazterketen koadroan sarturik ez daudela ziurtatzeko azterketa medikua egingo zaie.**

**Aukeratutako hautagaiek, ezinbesteko arrazoirik gabe, aipatutako epean behar den dokumentazioa aurkezten ez badute eta eskatutako baldintza guztiak egiaztatzen ez badituzte, ezin izango dira praktiketako funtzionario izendatu, eta indargabeturik geratuko dira haren jardun guztiak, eskabide-orrian gezurretan aritzeagatik izan zezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.**

#### **9.- PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA.**

**Alkate andreak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Epaimahaiak proposaturiko hautagaiak.**

**Praktiketako funtzionario izendatutako hautagaiak egoera horretan egongo dira prestakuntza ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa-prozesutik baztertu arte.**

**Prestakuntza ikastaroa eta praktika-aldia ezingo dira batera egin, eta biak batutako iraupena ere 18 hilabetekoa izango da. Dena den 12 hilabeteko epean A, BTP eta B+E gida baimenak dituela ziurtatu beharko dute udalaren aurrean, lortuko ez balute hautaketa-prozesutik kanpo geldituko direlarik.**

Prestakuntza ikastaroa eta praktika-aldia, derrigorrezkoak eta baztertzailerak izango dira eta gairak ez badira, automatikoki kanporatuta geratuko dira izangaiak eta deialdi honetako udaltzain kategorian sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Prestakuntza ikastaroaren ebaluazioa egin eta beraz gairak izango diren indarrean dagoen ikasketa planak agindutakoari jarraituko zaie, eta bertan zehaztutakoari jarraituz prestakuntza ikastaroa, praktika-aldia eta ezarritako baldintzak gairak ez duten izangaiak ez-gai izendatu eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

#### a) Prestakuntza ikastaroa.

Prestakuntza ikastaroa Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako Udaltzain kategoriarako sartzeko oinarrizko ikastaroaren ikasketa planak agindutakoari jarraituz burutuko da, Euskal Herriko Polizia Ikastegian edo bere zuzendari andreak erabakitzen duen prestakuntza zentroan geratuko da, hautaketa izaera izango du eta ezarritako Ikasketa Planaren arabera izango da, bertan aurreikusitako erregimen eta iraupenarekin. Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendari andreak erabakitzen duen arabera ezarritako da hasiera eguna eta udalaren iragarki Taulan argitaratuko da.

Prestakuntza ikastaroaren amaierako kalifikazioa Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki taulan argitaratuko du Prestakuntzako arloburuak. Azken kalifikazio horiek Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendari andreak adieraziko dizkio Alkateari.

#### b) Praktika-aldia.

Praktika-aldia Prestakuntza ikastaroa amaitu duten izangaiak egingo dute, 18 hilabeteko epealdia erabat osatzeko falta zaien iraupenarekin erabat prestatu eta, bereziki, Udaltzaingoaren zerbitzuen egitura eta funtzionamendua ezagutzeko egokien diren zentro edo egoitzetan, jarduera arloaren arabera.

Hautaketa izaera du ere praktika-aldiak eta honen ebaluazioa Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Hautaketa eta Jarraipen Alorrari dagokio. Ebaluazioa, Udaltzaingoaren agente oinarrizko eskalako agente kategoriararen berezko funtzioak betetzeko erakutsitako egokitasunari buruzkoa izango da eta zereginak betetzeari lotutako lanbide eraginkortasuna eta zehazki, ondokoa hartuko da kontutan; zerbitzuarekiko jarrera, nagusiekiko harremana eta disziplina, lankidetzaren eta laguntza, errendimendua eta erantzukizuna, egoeraren zentzua eta oreka emozionala eta egokitzeko ahalmena, behatzeko errazak diren eta zehatz deskribatutako jarrerak baloratuz.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Zuzendari A.ak zehaztuko ditu praktika-aldia baloratzeko tresnak eta prozedura, praktika-aldia hasi baino lehen horretarako egin eta Bergarako udaletxeko iragarki taulan argitaratuko den ebaluazioaren bidez.

Praktika-aldiko azken balorazioa gai/ez-gai izango da eta udal iragarki Taulan argitaratuko da.

Hautaketa prozesutik baztertu eta udaltzain kategorian sartzeko hartutako eskubide guztiak galtzeko arrazoia izango dira prestakuntza ikastaroa edo praktika-aldia ez gairak izendatu edo ez-gai izendatu izana eta larritzat edo oso larritzat jotzen den arau-haustea egiteagatik zigorra jasotzea.

**Prestakuntza ikastarora edo praktika-aldian ez joateak, hautaketa prozesutik kanporatzea ekarriko du automatikoki, ezinbesteko arrazoia izan ezik.**

**Praktika-aldia eta prestakuntza ikastaroa gainditu ondoren, karrerako funtzionari izendatuko dira izangaiak, Udaltzaingoaren udaltzain lanpostua jabetzan hartuz.**

Izangairen bat Hautespen prozesutik baztertua izango balitz Prestakuntza ikastarora edo praktika-aldian ez joateagatik edo praktikaldia ez gainditzeagatik, oposizioaldiaren kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko izendapen proposamena egingo du organo eskudunak eta honi ere oinarri honetan jasotakoa aplikatuko zaio: funtzionario-praktikaldian izendatu, dagokion formazio ikastaroa ....

#### **10.- LANPOLTSA.**

**Plaza ez eskuratu baina oposizioa gainditzen duten hautagaiekin Udaltzainen lanpoltsa osatuko da.**

**Lan-poltsak onartzen denetik hasita urtebeteko balioa izango du, urtez urte eta gehienez ere beste lau urtetan luzatu ahal izango delarik, Gobernazio eta Zerbitzuen Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak horrela erabakiko balu.**

**Lan poltsaren funtzionamendua izango da Udalak 2006ko apirilaren 4an, Alkatearen dekretu bidez onartua duen lan poltsen erabilerarako barne araudiak jasotzen duena (eranskin gisara dago jasota).**

#### **11.- PROZESUAREN ARGITALPENAK**

**Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira ([www.bergara.net](http://www.bergara.net))**

**Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatze eskubidea, horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.**

#### **12.- GORABEHERAK.**

**Oinarri-arau hauetan aurreikusten ez den guztian, Oposizioa behar bezala egiteko, izan litezkeen zalantzak argitzeko eta behar diren akordioak hartzeko ahalmena izango du epaimahaiak.**

**Deialdia, haren oinarri-arauak eta horietatik eta epaimahaiaren jardunetik sortzen diren administrazio-egintzak, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen azaroaren 26ko 30/92 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan inpugnatu ahal izango dira.**

#### **13.- DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA**

**Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatu denak izan ezik.**

**Hautaketa prozesua bukatu eta hiru hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.**

## I. ERANSKINA

### GAI-MULTZOA

**1. gaia Espainiako konstituzioa:**

Egitura eta printzipio orokorrak. Espainiarren eskubideak eta betebeharrak. Hura errespetatzearen garantia nagusiak.

**2. gaia Autonomi estatutua (Euskal Autonomi Elkartea):**

Haren oinarri historikoa eta juridikoa. Atariko titulua. Elkartearenak bakarrik diren eskumenak.

**3. gaia Zuzenbide Penala eta Prozesala:**

Delituak eta Faltak, Erantzukizun Kriminala eta haien gora-behera aldatzaileak. Funtzionarioen delituak, kargua betetzen.

**4. gaia Delitu-motak:**

Pertsonen kontrako delituak. Sexu-askatasunaren kontrako delituak. Ohorearen kontrako delituak. Askatasunaren eta Segurtasunaren kontrako delituak. Jabetzaren kontrako delituak.

**5. gaia Judiziamendu Kriminalari buruzko legea:**

Salaketa. kereila. Polizia Judiziala. Delitua egiaztatzea eta delitugilea arakatzea. Zitazioa, preso hartzea, behin-behinekoz gartzelan sartzea. Habeas Corpus. Itxitako lekuan sartzea.

**6. gaia Legeria (Toki Administrazioa eta Funtzionarioak):**

Administrazioaren eta funtzionarioen jarduera eta erantzukizuna. Bateriaezintasunak.

**7. gaia Euskal Herriko Polizia legea:**

Xedapen Orokorrak (Udaltzainen egitekoak). Kode deontologikoa. Funtzionario sartu, eskuratu eta funtzionario izaera galtzea. Eskubideak eta betebeharrak. Administrazio-egoerak. Diziiplina araubidea. Udaltzainei buruz (xedapen orokorrak eta egitura).

**8. gaia Toki-Administrazioa:**

Udalerria (izena, herria eta erroldatzea). Ordenantzak eta Araudiak (motak, lantzea eta onartzea) eta Ordenantza fiskalak. Administrazio-egintza. Administrazio-jardunbidea.

**9. gaia Bide-segurtasunari buruzko legea (339/90 ED):**

Zirkulazioan jarduteko arauak. Seinalazioari buruzkoak. Administrazio-baimenak. Arau-hauste eta santzioei, zuhurtasunezko neurriei eta erantzukizunari buruzkoak. Santzionatzeko jardunbidea eta errekurtsioak.

- 10. gaia**      **Atzerritarrei buruzko legea:**  
**Xedapen orokorrak. Eskubideak eta betebeharrak. Sartzeko araubidea.**  
**Egoera. Lana eta ezartzea. Irtetea. Araubide berezia. Arau-haustek eta**  
**santzioak. Garrantziak eta Araubide Juridikoa.**
- 11. gaia**      **Bergara. Geografia. Demografia. Ekonomia, udalerria ezagutzea.**  
**Monumentu artistikoak. Zerbitzu Publikoak.**

## II. ERANSKINA

### **MEDIKUNTZAKO BAZTERKETEN TAULA**

#### **LEHENENGO ZATIA : "ANTROPOMETRIA"**

Gorputz masari dagokionez, baztertu egingo dira (GMI) 28tik gorako indizea badute eta koipetan %23 baino gehiagokoa badute gizonezkoen kasuan eta emakumezkoetan %31 baino gehiagokoa badute. Guzti hori inpedantzia bioelektrikoaren bitartez eginik .

GMI formula honekin lortuko da:

Pisua (kg-tan)

GMI.= -----

Garaiera 2 (metrotan)

Pisua barne-jantzitan neurtuko da.

#### **BIGARREN ZATIA: "MEDIKU AZTERKETA"**

##### A.– Bazterketa orokorra.

1.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzeko mugak jartzen dituzten gaixotasun, síndrome eta gorputz-akatsak izatea.

Era berean, alterazio horiek baztertzeko arrazoitzat jo ahal izango dira hautaketa prozesuaren edozein alditan agertzen direla ere.

2.– Inguruabarreko baztertzetat joko dira, azterketa egiterakoan bazterketa-taulan sartuta egon arren, bidezko tratamendu mediku-kirurgikoaren bidez zuzen daitezkeen gaixotasun eta lesio aktiboak. Kasu horietan, mediku-epaimahaiak beste epe bat jarri ahal izango du, ikasturtea hasi aurretik, izangaiaren osasun-egoera egiaztatzeko. Hori, egin ondoren, inguruabarreko baztertze-arrazoiak desagertu diren ziurtatuko du.

##### B.– Ikusmena.

3.– Zuzenketarik gabeko begi-zolitasuna: ez da ikusmen arruntaren 6/10 baino txikiagoa izango begi bakoitzean.

4.– Ikusmen-eremuaren murrizketa aipagarriak.

5.– Koloreak ikusteko alterazioa.

6.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa oztopatzen duten bestelako oftalmologi prozesuak.

### C.– Entzumena.

7.– Entzumen-zolitasuna (entzuteko protesirik gabekoa).

7.1. Estapedektomiagatiko otoesklerosi-zirugia osasun aurrekariak.

7.2. Patologia neurosensoriala, entzumen-zolitasun binauralaren galtzea gutxienez %20a denean, ondorengo formularen arabera ikusita.

$$(5x\%galtzea\ belarririk\ onenean) + \%galtzea\ belarririk\ okerrenean\ \%galtze\ binaurala / 6$$

7.3. Edozein belarritan %20tik gorako entzumen-zolitasun monoauralaren galtzea, ondorengo formularen arabera ikusita.

• galtzeak dB en 500, 1000, 2000 eta 3000

$$\%galtze\ monoaurala = \left( \frac{\text{galtzeak dB en } 500, 1000, 2000 \text{ eta } 3000}{4} - 25 \right) \times 1,5$$

4

7.4. Alde bat kaltetua; 500, 1000 eta 2000 Hz batz bestekoa belarririk onenean 25 dB baino gutxiago eta belarririk okerrenean 60 dB baino gehiago denean.

7.5. Alde bat kaltetua; elkarren ondoko bi frekuentzietan batz bestekoa 45 dB-ko elkarren arteko asimetria aurala.

8.– Bertigo-sindromea.

9.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako otorrinolaringologi prozesuak.

### D.– Nerbio-sistema.

10.– Polizi egitekoa betetzea eragozten duen hitz-toteltasuna.

11.– Epilepsia zein gaixotasun horren aurrekariak. Fitxatu gabeko konbultsioak. Edozein etiologiako dardara.

12.– Mugimendu-urritasuna.

13.– Polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako neurologi prozesuak.

### E.– Gogamen-egoera

14.– Toxikapen exogenoa adierazten duten sintomak zein zantzu kliniko biologikoak (Gernuan legez kanpoko droga-metabolitoak antzematea). Toxikomaniak. Alkoholismoa.

15.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako buru nahaste eta jokabide nahasteak.

#### F.– Lokomozio-aparatua.

16.– Polizi egitekoa normal betetzeko beharrezko den edozein giltzadurako muga funtzionala.

17.– Polizi egitekoa mugatzen duten bizkarrezurreko akatsak.

18.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea eragozten duen lokomozio-aparatuko beste edozein prozesu.

#### G.– Bihotz eta zirkulazio-sistema

19.– Bihotzeko gutxiegitasuna. Bihotzeko gutxiegitasunera jo dezaketen bihotzeko gaixotasunak.

20.– Bihotz-arritmia larriak.

21.– Sendagai bidezko tratamendua eskatzen duen arteri hipertentsioa.

22.– Polizi egitekoa betetzea mugatzen duten gorputz-adarretako bena eta linfa-zirkulazioaren asaldua kronikoa.

23.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa normal burutzea mugatzen duten bihotz eta zirkulazio-aparatuko bestelako alterazioak.

#### H.– Giltzurrun-sistema.

24.– Giltzurrun-gutxiegitasuna. Giltzurrun-gutxiegitasunera jo dezaketen giltzurrunetako gaixotasunak.

25.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa normal burutzea eragozten duten bestelako giltzurrun prozesuak.

#### I.– Arnas-aparatua.

26.– Arnas-funtzioan ondorio iraunkorrak edo noiz behinkakoak dituzten arnas-gaixotasunak.

27.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa burutzea mugatzen duen bronkioetako asma.

28.– Berezko pneumotoraxa (behin baino gehiagotan), gerora kirurgiaren bidez zuzendu ez bada behintzat.

29.– Tuberkulosi aktiboa, tratamenduan egon arren.

30.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea mugatzen duen bestelako edozein arnas-patologia.

#### J.– Liseri-aparatua.

31.– Edozein eboluzio-egoeratan dauden hepatopatiak.

32.– Hesteetako hantura-gaixotasun kronikoak.

33.– Polizi egitekoa betetzea eragozten duten liseri-hodiaren edozein tarteko erauzketak, apendizektomiak izan ezik.

34.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea mugatzen duen bestelako edozein liseri-prozesu.

#### K.– Dermatologia.

35.– Orbain erretraktilak edo muga funtzionala sortarazten duen beste edozein lesio.

36.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea mugatzen duten bestelako dermatologi alterazioak.

#### L.– Hematologia.

37.– Odoleko eta organo hematopoietikoko gaixotasunak, kronikoak edo eboluzio progresiboa dutenak, mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa burutzea eragozten dutenak.

#### M.– Bestelako patologiak.

38.– Diabetes mellitus.

39.– Neoplasi prozesuak.

40.– Inmunologi eta erreuma gaixotasunak.

41.– Eritasun infekto-kutsagarriak.

42.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, polizi egitekoa betetzea eragozten duen bestelako edozein patologi prozesu.

## PROBA FISIKOAK

### **A) ABDOMINALAK:**

Ahoz gora egonik, hankak elkarturik eta erdi tolesturik, eskuak gurutzaturik garondo ostean eta lagun batek belaunak estaturik. Minutu batean ahalik eta errepikatze gehien egingo da, honen ondoren adierazten den bezala:

1.- Hautagaia eseri egingo da eta gorputz-enborra biratuko du ezkerraldera, eta eskumako ukondoaz ezkerreko belauna ukitu.

2.- Hasieran zegoen moduan jarri.

3.- Gorputz-enborra eskumarantz bihurtuko du eta ezkerreko ukondoaz eskumako belauna ukitu.

**GIZON-EMAKUMEEN BAREMOA**

**KOP. \_\_\_\_\_ NOTA**

47	6
46	5,75
45	5,50
44	5,25
43	5
42	4,75
41	4,50
40	4,25
39	4
38	3,75
37	3,50
36	3,25
35	3
34	2,75
33	2,50
32	2,25
31	2
30	1,75
29	1,50
28	1,25
27	1
- 26	0

**B) BESOAK FLEXIONATZEA:**

Jarlekuaren gainean oin-puntak jarrita direla eta besoak luzaturik, besoak flexionatzea, markadorea bularraz ukitu arte.

Besoak luzatzean ez da onartuko gorputz-enborrez ez mokorrez konpentsaturiko ezein mugimendurik; linean egongo dira mokorrak nahiz gorputz-enborra.

Ariketa hasi eta ezin izango da atsedetik hartu eta ondo egindako flexioak zenbatuko dira.

<b>GIZONEN BAREMOA</b>		<b>EMAKUMEEN BAREMOA</b>	
<b>KOP.</b>	<b>NOTA</b>	<b>KOP.</b>	<b>NOTA</b>
37	6	25	6
36	5,75	24	5,75
35	5,50	23	5,50
34	5,25	22	5,25
33	5	21	5
32	4,75	20	4,75
31	4,50	19	4,50
30	4,25	18	4,25
29	4	17	4
28	3,75	16	3,75
27	3,50	15	3,50
26	3,25	14	3,25
25	3	13	3

24	2,75	12	2,75
23	2,50	11	2,50
22	2,25	10	2,25
21	2	9	2
20	1,75	8	1,75
19	1,50	7	1,50
18	1,25	6	1,25
17	1	5	1
16	0,90	4	0,50
15	0,80	-4	0
14	0,70		
13	0,60		
12	0,50		
11	0,40		
10	0,30		
9	0,20		
-9	0		

**C) FLEXIBILITATE SAKONA:**

Taula ganean (oinetakorik gabe) oinak dagokien lekuan jarrita, gorputz osoa flexionatu besoak atzerantz eta hanka tartera botatzen direla, bi eskuez batera erregelaren kurtsorea ukitu eta bultzatu arte.

Oreka mantendu behar da eta aparatua utzi behar da, aurrealdetik eta oinez.

**GIZON-EMAKUMEEN BAREMOA**

<u>KOP.</u>	<u>NOTA</u>
42	6
41	5,75
40	5,50
39	5,25
38	5
37	4,75
36	4,50
35	4,25
34	4
33	3,75
32	3,50
31	3,25
30	3
29	2,75
28	2,50
27	2,25
26	2
25	1,75
24	1,50
23	1,25

22	1
21	0,90
20	0,80
19	0,70
18	0,60
17	0,50
16	0,40
15	0,30
14	0,20
-14	0

D) ABIADURA - 50 METRO:

Hasierako posizioa: zutik emango zaio hasiera.

GIZONEN BAREMOA		EMAKUMEEN BAREMOA	
DENBORA	NOTA	DENBORA	NOTA
7"0	6	8"2	6
7"1	5,50	8"3	5,50
7"2	5	8"4	5
7"3	4,50	8"5	4,50
7"4	4	8"6	4
7"5	3,50	8"7	3,50
7"6	3	8"8	3
7"7	2,50	8"9	2,50
7"8	2	9"0	2
7"9	1	9"1	1
+7"9	0	+9"1	0

E) 1.000 METROKO LASTERKETA:

GIZONEN BAREMOA		EMAKUMEEN BAREMOA	
DENBORA	NOTA	DENBORA	NOTA
3'35"	6	4'15"	6
3'36"	5,90	4,16"	5,90
3'37"	5,80	4,17"	5,80
3,38"	5,70	4'18"	5,70
3'39"	5,60	4'19"	5,60
3,40"	5,50	4'20"	5,50
3'41"	5,40	4'21"	5,40
3'42"	5,30	4'22"	5,30
3'44"	5,20	4'23"	5,20
3'45"	5,10	4'24"	5,10
3'46"	5	4'25"	5
3'47"	4,90	4'26"	4,90

3'48" 4,80  
 3'49" 4,70  
 3'50" 4,60  
 3'51" 4,50  
 3'52" 4,40  
 3'53" 4'30  
 3,54" 4,20  
 3,55" 4,10  
 3,56" 4  
 3'57" 3,80  
 3'58" 3,60  
 3'59" 3,40  
 4,00" 3,20  
 4,01" 3

4'27" 4,80  
 4'28" 4,70  
 4'29" 4,60  
 4'30" 4,50  
 4'31" 4,40  
 4'32" 4,30  
 4'33" 4,20  
 4'34" 4,10  
 4'35" 4  
 4'36" 3,80  
 4'37" 3,60  
 4'38" 3,40  
 4'39" 3,20  
 4'40" 3

**GIZONEN BAREMOA**

**DENBORA NOTA**

4,02' 2,80  
 4,03" 2,60  
 4'04" 2,40  
 4,05" 2,20  
 4,06" 2  
 4'07" 1,80  
 4'08" 1,60  
 4'09" 1,40  
 4'10" 1,20  
 4'11" 1  
 4'12" 0,80  
 4'13" 0,60  
 4'14" 0,40  
 4'15" 0,20

**EMAKUMEEN BAREMOA**

**DENBORA NOTA**

4'41" 2,80  
 4'42" 2,60  
 4'43" 2,40  
 4'44" 2,20  
 4'45" 2  
 4,46" 1,80  
 4,47" 1,60  
 4,48" 1,40  
 4,49" 1,20  
 4,50" 1  
 4,51" 0,80  
 4,52" 0,60  
 4,53" 0,40  
 4,54" 0,20

